

«Erantzunak baino,
galderak
proposatzen dituen
tailerra da ‘Acerca la
mirada’. Ehunka
pertsona igaro dira
bertatik, eta
ziurtatu dezaket
inor ez dela epel
geratu»

**Asko dira egindako lanak. Hori-
rietako bat aukeratzeko ata-
kan jarritz gero, zein aukeratu-
ko zenuke? Zergatik?**
Lan guzti-guztiek identifikatzen
naute. Baina “Combatir la nada”
erabat bukatua dudana azken lana
da nire egungo pertsonatik eta
autore izaeratik gertuen dagoena.

**Bidaia da zure obren protago-
nista handi bat. Zergatik?**
Egia da. Behin baino gehiagotan
erabili dut bidaia argazki
proiektuen hari gidari moduan.
Ekin ezina zait; izan ere, neure
bizitza bera berdina ikusten dut.
Garrantzitsuena, nire ustez be-
deren, lan egitea ahalbidetzen
dizuten arazoak edukitzea da,
eta ez, lan ez egiteko aitzakiak
izatea.



Argazkiak: MADRE TIERRA | Leo SIMOES

«Argazkilaritza garaikidearen mapan kokatu nahi dugu Durango»

Begira Photo jaialdiko zuzendaria zara. Nola hasi zen jaialdia?
Argazkilaritza kulturaren zabalpena eta
aitortza sustatu nahi du jaialdi honek. Eta
hortaz, Begira Photo argazkilaritzaren
aktibismotik sortzen dela esan dezakegu.

Zein da zehazki zure lana?
Jaialdiaren bultzatzaile moduan nire lana
iraila aldean hasten da, programazio
artistikoaren diseinuarekin, lehen ideia,
kontaktuak... Koordinazio orokorra daraman
pertsonarekin zuzenean aritzen naiz eta

elkarrekin ixten dugu programa, abendu
inguruan. Ondoren ekipo osoaren lana hasten
da, zuzendu beharrekoa lana, helburuak
zehaztu, emaitzak aztertu, estrategiak sortu...

Zer nolako ibilbidea egin du jaialdiak?
Lau urte hauetako ibilbidearen balantzea ona
da. Jaialdia handituz joan da. Baina gehiago
nahi dugu eta horretarako lanean gaude jada.
Gauzak poliki eta ondo egitea da gure
helburua, eta, ahal bada, Durango
argazkilaritza garaikidearen panorama
artistikoan kokatu nahiko genuke.

Ukraina

Joseba
Otondo

Kiev Iruñetik 3.000 kilometrorat da-
go. Europako geo-
grafia fisiko eta
sozialaren parte da, baina nonbait,
ez ikusiarena egin nahiago dugu.
Bitxia da, baina Euskal Herrian Eu-
ropako ezker eta herri mugimen-
durik indartsuenetakoa dagoela
aditu dugu, franko modu handius-
tean –bidenabar erranda–; ba, hori
minimoki egia bada –ikaragarriak
garela–, ulergaitza da pasatzen ari
denari buruz egiten ari den jarrai-
pen mediatiko eta politikoa. Non-
bait afera sobera konplexua da eta
hemendik aski ideologizaturik eta
aurreiritziz josia ikusten da: ez gai-
tezen gureak ez diren aferengatik
mokoka hasi. Hori izan da, orobat,
Ukrainakoari iskin egiteko orain
artioko argudiotegia.

Kezkagarria. Ukrainan kezkatze-
ko moduko elementu aunitz dau-
delako. Eta guri bi kontuk bereziki
kezkatu beharko gintuzkete: es-
kuin muturreko taldeen indarra
eta NATOren edo bertze gisa erran-
da inperialismo euroamerikarra-
ren jokabidea. Eta bi horiek diot
Europar pizti arrea pizten ari dela
dirudielako eta egiturazko krisi
testuinguru zakar honetan irtenbi-
de posibleetako bat gure kontinen-
tean erroak dituen mugimendu
horretatik etorri daitekeelako. Eta
NATO diot, zeren nahiz hegoalde-
ko Euskal Herriarrek erreferendu-
mean arbuia, praktikan Espai-
niako eta Frantziako estatuen
bitartez egitura inperialista horre-
tan baiak eta natur baliabideen
eskasi eta agorraldi fasean mundu
mailako hainbat baliabideren gai-
neko ageriko edo isilpeko borroka
hasi baitu. Bistan da inperialis-
moa, barnerat begira, hala nolako
demokrazia burges forma batzue-
kin uztartu daitekeela, Europar Ba-
tasuna adibidez. Kanporat begira,
haatik, fase honetan ekofaxismoa-
ren forma hartzen hasi da. Mun-
duko baliabideei buruzko borroka,
gero eta toki gehiagotan, gerra for-
ma hartzen ari da. Horren gaineko
gogoeta, nahiz eta ondorioa iritzi
kontrajarriak izan, ez da saihesten
ahal. •